

**31/2024 TXOSTENA, URRIAREN 23KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: LEHENDAKARITZAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA
EZARTZEN DUEN DEKRETUAREN PROIEKTUA****I.- AURREKARIAK.**

Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dira, eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen; bada, dekretu horren 4. artikulua hau dio:

“4. artikulua.– Lehendakaritza.

1.– Autonomia Estatutuak, Jaurlaritzari buruzko Legeak eta beste lege-xedapen batzuek lehendakariari esleitzen dizkieten egitekoak bete ahal izateko, Jaurlaritzaren Lehendakaritzako organoen laguntza izango du lehendakariak. Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egitura eta egitekoak dekretu bidez zehazten dira. Jaurlaritzaren Lehendakaritzak jardun-arlo hauek izango ditu:

- a) Lehendakariari laguntza ematea Jaurlaritzaren ekintza planifikatzen eta koordinatzen; halaber, gobernu-programa eta plan estrategikoak bultzatzea eta horiei jarraipena egitea.
- b) Jaurlaritzaren bozeramaileta.
- c) Erakundeen arteko eta sailen arteko koordinazioa, eta proiektu estrategikoak, gizarte- eta sektore-eraldaketei aurre egiteko, lankidetzaren gobernatzako eredu batean.
- d) Jaurlaritzaren informazio- eta komunikazio-politika.
- e) Parte-hartze soziala eta herritarrentzako informazio zuzena, multimedia- eta komunikazio-teknologia berrien bidezko edukiak sortuta, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko Sailarekin lankidetzan.
- f) Gizarte- eta erakunde-harremanak. g) Euskal Autonomia Erkidearen kanpoko ordezkartza- eta proiektzio-politika.
- h) Jaurlaritzaren politika gai hauetan: Europako gaiak, mugaz gaindiko eta eskualdeen arteko lankidetzaren, euskal gizataldeak eta euskal etxeak.
- i) Lankidetzaren eta elkartasun-politika.

- j) 2030 Agendaren ezarpena bultzatzea, hargatik eragotzi gabe agenda hori Jaurlaritzaren sektore-politiken bidez gauzatzea.
- k) Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatu, planifikatu, koordinatu, ebaluatu eta horiei buruz aholku ematea, emakumeen kontrako indarkeria matxistari buruzkoak barne.
- n) Prospekzio eta azterketa soziologikoa.
- o) Talentua sustatu, atxiki eta erakartzeko politika.
- p) Euskadi Berria, ongizatearen Euskadi berri bat egiteko prospektiba, azterketa eta eredugintza; eta hori sailen artean koordinatzea.
- q) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak”.

Artikulu horren bigarren apartatuaren arabera, Jaurlaritzaren Lehendakariari atxikita daude hauek: «Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea» administrazio-organismo autonomoa eta «eLankidetzaz – Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia» zuzenbide pribatuko ente publikoa.

Azkenik, hirugarren apartatuak xedatzen du Jaurlaritzaren Lehendakaritza sailtzat joko dela aurrekontu- eta kontratazio-ondorioetarako.

2024ko urriaren 21ean, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Espediente hori Tramitaguneraren bidez izapidetu zen, hau da, prozedurak elektronikoki izapidetzeko aplikazio informatikoaren bidez, DNCG_DEC_5024/24_01 erreferentziarekin, eta txostenerako interesgarriak diren agiri hauek ditu:

- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretua egiteko prozedura hasteko agindua.
- Proiektua alde aurretik onartzeko agindua.
- Proiektuaren arau-eragina aztertzeke memoria.
- Proiektuari buruzko memoria ekonomikoa.

Dekretu-proiektua honela osatuta dago: 23 artikulu, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat.

II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, 116/2016 Dekretuak 27. artikulua a) letraren 1. apartatua ezarritakoari jarraikiz (116/2016 Dekretua, uztailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezartzekoa); izan ere, xedapen orokor bat da, eta xedapen orokor horren edukiak kontratazio publikoaren eremuari eragiten dio, partzialki, eta Gobernu Kontseiluari dagokio hura onartzea.

Bestalde, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, Aholku Batzordeak duen aholkularitza-eginkizuna, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Txostenaren irismenari dagokionez, dekretu-proiektutik sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten esparruak soilik jasotzen dira txosten honetan; izan ere, kontratazio publikoaren gaineko eskumenak bakarrik dagozkio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari.

III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Dekretu-proiektuaren 2. artikulua Lehendakaritzaren egitura ezartzen du, eta, zehazki, organo hauek:

1.1.– Lehendakaria:

Kabinete Zuzendaritza.

1.2.– Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen Idazkaritza Nagusia:

a) Araubide Juridikoaren Zuzendaritza.

b) Zerbitzu Zuzendaritza.

c) Koordinazio Estrategikoaren Zuzendaritza.

1.3.– Kanpo Harremanen eta Euskadi Globalaren Idazkaritza Nagusia:

a) Europako Gaiaren Zuzendaritza.

b) Kanpo Harremanen eta Organismo Multilateralen Zuzendaritza.

c) Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako Zuzendaritza.

d) Ordezkaritzak: Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza, Euskadiren Argentinako eta Uruguaiako Ordezkaritza, Euskadiren Txileko Ordezkaritza, Euskadiren Kolonbiako



Ordezkaritza, Euskadiren Estatu Batuetako eta Kanadako Ordezkaritza, Euskadiren Mexikoko Ordezkaritza, Euskadiren Frantziako Ordezkaritza eta Euskadiren Madrilgo Ordezkaritza.

1.4.– *Komunikazio eta Berrikuntza Sozialaren Idazkaritza Nagusia:*

- a) *Komunikazio Sozial eta Digitalaren Zuzendaritza.*
- b) *Nortasun Korporatiboaren Zuzendaritza.*
- c) *Azterlanen Zuzendaritza.*
- d) *Berrikuntza Sozialaren eta 2030 Agendaren Zuzendaritza.*

1.5.– *Euskadi Berriaren komisionatua.*

Orain, dekretu-proiektuan kontratazio publikoari buruzkoak diren artikulua aitapuko ditugu:

“6. artikulua.– Idazkaritza nagusiak.

1.– Lehendakaritzaren egitura osatzen duten idazkaritza nagusi guztiei dagokie, dekretu honetan zehaztutako arlo espezifiko bakoitzari dagozkion egitekoez gain, honako egiteko orokor hauek betetzea:

- a) *Kontratazio-organo gisa jardutea esleituta dituzten jardun-arloei dagozkien gaietan, baldin eta indarreko legeriaren arabera kontratu txikitat jotzen ez badira. Hala ere, kontratazio-organo gisa jardungo dute zuzenean haien mende dauden zuzendaritzen jarduera-eremua gainditzen duten kontratu txikietan ere, baldin eta beren jardun-eremuei dagozkien gaiak badira.*
- b) *Beren jardun-arloei dagozkien gaietan espedienteak izapidetzeko beharrezkoak diren gastuetarako baimenak eta onarpenak ematea, hargatik eragotzi gabe 9.2.f) artikuluan xedatutakoa.*
- c) *Bitarteko pertsonifikatuekin mandatuak egitea, beren jardun-eremuei dagozkien gaien esparruan, betiere beste organo batzuei esleitu ez bazaizkie.*

[...]

7. artikulua.– Zuzendaritzak.

Lehendakaritzaren egitura osatzen duten zuzendaritza guztiei dagokie, dekretu honen hurrengo kapituluetan zehaztutako arlo espezifikoari dagozkien egitekoez gain, honako egiteko orokor hauek betetzea:

- a) *Kontratazio-organo gisa jardutea esleituta dituzten jardun-arloei dagozkien gaietan, indarreko legeriaren arabera kontratu txikiak direnean.*
- b) *Indarrean dagoen legerian txikitat tipifikatutako kontratuen gastuetarako baimenak eta onarpenak ematea beren jardun-arloei dagozkien espedienteetan.*
- c) *15.000 euroko edo hortik beherako gastuak baimentzea eta onartzea, zergak kanpo utzita.*

[...]

KOORDINAZIOAREN ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOEN IDAZKARITZA NAGUSIA

9. artikulua.– Egitekoak.



[...]

2.– *Lehendakaritzari dagozkion eskumenen esparruan, Koordinazioaren eta Proiektu Estrategikoen Idazkaritza Nagusiaren titulartasuna duenak honako egiteko hauek hartuko ditu bere gain:*

[...]

d) *Idazkaritza nagusietako baten berezko esparrutik kanpo dauden eta indarrean dagoen legeriaren arabera kontratu txikiak ez diren arloetako kontratazio-organoa izatea, eta, oro har, aurrekontu-araubidearen eta kontratazio-araubidearen arloan sailtako titularrei esleitzen zaizkien ahalmenak baliatzea.*

e) *Era berean, eskumena izango du bitarteko propio pertsonifikatuekin mandatuak sinatzeko, idazkaritza nagusietako baten berezko esparrua gainditzen duten gaietan, betiere beste organo batzuei esleitu ez bazaizkie.*

f) *Lehendakaritzaren eskumenekoak diren espedienteak izapidetzeko beharrezkoak diren gastueterako baimenak eta onarpenak ematea, dekretu honetan beste organo batzuei esleitu ez bazaizkie. Nolanahi ere, euren zenbatekoa dela-eta, zenbait gastu Gobernu Kontseiluari egokituko zaizkio.*

[...]

10. artikulua.– *Araubide Juridikoaren Zuzendaritza.*

7. artikuluan esleitutako egitekoen gain, honako hauek dagozkio Araubide Juridikoaren Zuzendaritzari:

[...]

d) *Saileko organoei aholkuak ematea sektore publikoko kontratuen legeriari buruz, legeria hori hartan araututako edozein prozeduratan behar bezala aplikatzeari buruz eta kontratuak gauzatzeari buruz, hargatik eragotzi gabe beste organo batzuek beste eskumen batzuk esleitura izatea.*

11. artikulua.– *Zerbitzu Zuzendaritza.*

[...]

3.– *Kontratazioaren esparruan, Zerbitzu Zuzendaritzari honako hauek dagozkio:*

a) *Sektore publikoko kontratuen legeriari lotutako prozedurak izapidetzea, hargatik eragotzi gabe Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumenak eta Lehendakaritzako beste organo batzuei arauz esleitutako eskumenak.*

b) *Kontratazio-organo gisa jardutea idazkaritzetako baten berezko eremua gainditzen duten gaietan, indarreko legeriaren arabera kontratu txikiak direnean.*

17. artikulua.– *Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza.*

[...]

2.– *Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritzaren titularrak kontratazio-organo gisa jardungo du bere lurralde-eremuan egindako kontratuetan, baldin eta sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratu txikiei eta higiezin errentamendu-kontratuei buruzkoak badira, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 41. artikulua 2. apartatuaren a) eta b) letretan aurreikusitako baldintzetan. Era berean, kontratazio horiek eragiten duten gastua baimentzea dagokio.*

18. artikulua.– *Euskadiren kanpoko beste ordezkaritza batzuk.*



[...]

3.– *Jaurlaritzaren Lehendakaritzako eta Ogasun eta Finantza Saileko organoen mende funtzionalki, Euskadiren kanpoko ordezkari bakoitzaren titularrak, bere eremuan, honako egiteko hauek izango ditu:*

c) Kontratazio-organo gisa jardutea dagokion lurralde-eremuan egindako kontratuetan, baldin eta sektore publikoko kontratuen legerian araututako kontratu txikiei eta higiezin errentamendu-kontratuei buruzkoak badira, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bateginaren 41. artikulua 2. apartatuaren a) eta b) letratan aurreikusitako baldintzetan. Era berean, kontratazio horiek eragiten duten gastua baimentzea eta onartzea dagokio.

Jarraian, dekretu-proiektuaren artikuluei buruzko zenbait alderdi azalduko ditugu:

Komeni da 6. artikulua a) eta b) letrak beste modu batera idaztea, dekretu-proiektuan ezartzen diren salbuespenei erreferentzia generikoa eginez.

Bitarteko propioekin egitekoak diren mandatuei buruz lehen aipatu den eskumenari dagokionez, gomendioa da berriaz adieraztea ezen halako enkarguak 116/2016 Dekretuaren IV. tituluan ezartzen diren baldintzetan egin behar direla –116/2016 Dekretuan arautzen baita figura hori–.

Bestalde, batzorde honek uste du komeni dela aipatutako artikuluen konplexutasunari buruzko gogoeta egitea. Izan ere, kontratazio-organo ugari daudenez eta, horien barruan, kontratu txikien eta handien artean bereizten denez, zaila izan daiteke kontratazioaren plangintza globala egitea, azaroaren 8ko 9/2017 Legeak eskatzen duen moduan (9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora; aurrerantzean SPKL esango diogu).

Ildo horretan, 9/2017 Legearen 28. artikulua 4. apartatuak xedatzen duenaren arabera, sektore publikoko entitate guztiek kontratazio publikoaren jardura programatu behar dute aurrekontu-ekitaldi bakoitzean edo urte anitzeko aldietan, eta kontratazio-planaren berri eman behar dute, aurretiazko informazioaren iragarki baten bidez –iragarki mota horien araubidea lege horren 134. artikuluan ezartzen da–.



Nolanahi ere, eta nork bere burua antolatzeko ahala beti errespetatu behar den arren, kontuan izan behar da kontratazio-organoak oso sakabanatuta egoteak berekin ekar dezakeela batera lizitatu daitezkeen kontratuak zatituta lizitatzea, nahi gabe, ez jakiteagatik kontratazio-organo bakoitza zer ari den izapidetzen une oro.

Ondorio horietarako, batzorde honen martxoaren 5eko 1/2020 Gomendioan adierazitakoa gogoratu behar da. Izan ere, gomendio horren arabera, kontratu txikiak salbuespen dira publizitatearen eta lehia askearen araubide orokorrean, eta, beraz, horien erabilera mugatu behar da, eta prozedura irekiaren bidez –prozedura sinplifikatua barne– izapidetutako kontratu handien eta esparru-akordioen alde egin.

Azkenik, batzuetan, hainbat kontratazio-organo egoten dira, kontratu asko eta oso konplexuak izapidetu behar izaten direlako. Alabaina, Lehendakaritzak azken urteotan egindako kontratuak aztertu ondoren, egiaztatu da horietako gehienak txikiak direla. Beraz, sistema sinplifikatzeko aukerari buruz hausnartu daiteke, hartara efikazagoak izatea lortzeko.

Horregatik guztiagatik, ALDEKO TXOSTENA ematen zaio Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen Dekretuaren proiektuari, baldin eta haren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta gomendioen arabera egokitzen bada.